

Balorezko proposamena

Gure IAGEa onuragarriak diren gauzak antolatzen lagundu eta egitea bultzatzen duen web gune bat denez, norberak bere komunitatean eta inguruan aldaketak egiteko erraztasuna eskaintzen dugu, eta, elkar ekintzak direnez, jarduerak aspergarriak edo gogorrak izan beharrean eramangarriak eta dibertigarriak izatea lortzen dugu, ekintza gehiago egiteko gogoia piztuz.

Gure enpresa besteengandik desberdintzen gaituen ezaugarri bat bertako pertsonak garela da, hau da, ekintzak hasiko garen tokian, zarautzen, ezagunak ditugu eta hauek gure proiektuetan parte hartzeko gertutasuna eskaintzen dugu.

Ikuspuntu zabalago batetik, desberdintzen gaituen ezaugarri nagusia web gunearen erraztasuna eta gardentasuna da, web gunearen atal desberdinak argi desberdintzen direlako (adibidez martxan dauden ekintzak orrialde batean ikusten dira, doazioak egitekoa beste batean, proiektu berriak proposatzekoa beste batean, ...) eta gardentasuna ekintzak arrazoi sinple bakar batengatik egiten ditugulako, jendeak bere komunitatea eta ingurumena hobetzeko.

Azkenik, gure IAGEa irabazteko asmorik gabeko erakunde bat denez eskuragarritasuna asko errazten du, doana delako eta ondorioz, gure proiektuen partaide izateko baldintza bakarra internetera konektatzeko ahalmena izatea da, gaur egun, edonor.